

1.7. Laugarren liburukiaren ezaugarriak

1.7.1. Liburukiaren edukia

Laugarren liburuki honek 260 galderaren erantzunak eskaintzen ditu, esan nahi baitu galderetarik ehuneko hamar baino pixka bat gutxiago.

Erantzun horiek 27-35 gaiak estaltzen dituzte galdesortan:

- 27: Txerria (56 galdera)
- 28: Hegaztiak (54 galdera)
- 29: Txakurra (14 galdera)
- 30: Erlea (9 galdera)
- 31: Baserria (10 galdera)
- 32: Etxea (19 galdera)
- 33: Teilatua eta zureria (42 galdera)
- 34: Etxearen zatiak (19 galdera)
- 35: altzariak (37 galdera)

Liburukiaren bukaeran, indexak aurkitzen dira, bai mapen moldaketari dagokiona, bai erantzunei dagokiena.

1.7.2. Liburukiaren egitura

Mapei eta erantzunei dagokien parte galderen arabera egituratua da: galdera bakoitzari badagokio alde batetik **erantzutegi** bat ezker aldeko orrialdean agertzen dena, eta, beste aldetik, haren parean, eskuin aldeko orrialdean, **mapa** bat, honen gainean galderaren **izenburuak** agertzen direla, eta behean maparen **leienda**, eta **ohartegia**.

Galdera bakoitzari doazkion erantzunak, herrialdeka eta inkesta lekuka zerrendatuak dira eta alfabeto fonetikoan emanak. Haien arabera egin dute argitalpenaren moldatzaileek interpretazio kartografiko bat mapa batean proposatzen dutena. Inkesta leku batean bildu den erantzuna zehazki jakiteko, erantzutegira jo behar da beraz, ez mapara.

Irakurleak ikusten duen bezala, hemengo mapen itxura ez da Euskaltzaindiak lan horietan usaian egiten dituen bezalakoa. Izan ere, Nafarroa Garaiko mugak modu berezian agertzen dira haietan eta, halaber, herri izenak ere, gaztelaniaz eta euskaraz desberdinak direnean, euskara soilean agertzeko orde, deitura ofizialtako era elebidunean ematen dira. Hastapenetik proiektu honen babesleatarik izan den Nafarroako Gobernuako agintariak 2001ean hala biziki eskaturik egin dira gauzak horrela.

1.7.3. Galdera izenburuak

Galdera bakoitzari dagokion gaztelaniazko, frantsesezko eta ingelesezko forma agertzen dira galdera izenburu gisa; izendapen zientifikoa ere bai batzuetan, galderak hala eskatzen duenean.

Izenburu horren azpian, galderak EHHako galdesortan daukan zenbakia agertzen da eta, galdera bera ondoko mintzairerako hizkuntza atlasetan ere egina izan delarik, atlas haietako galderen erreferentzia ere ematen da; adibidez, ALEANR (*Atlas lingüístico y etnográfico de Aragón, Navarra y Rioja*), ALG (*Atlas linguistique et ethnographique de la Gascogne*) edo ALE (*Atlas Linguarum Europae*). Adibidez, 779. mapako izenburuan; ALEANR: V, 644 erreferentzia agertzen da.